

Nafarroako Gobernuak 120.000 euro bideratuko ditu hiri ez diren eremuetako kultur eskaintza handitu eta dibertsifikatzera

Europako funtsekin finantzaturako proiektuak 2024ko urtarriletik irailera bitartean garatu beharko dira

Ostirala, 2024ko Apirilaren 12a



2023ko deialdian San Martín de Unxen egindako proiektua.

Nafarroako Gobernuak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, bigarren urtez jarraian 120.000 euroko laguntzen deialdia egingo du, Nafarroako hirigune ez diren eremuetan kultura-eskaintza zabaldu eta dibertsifikatuko duten proiektuak finantzatzeko, hau da, 30.000 biztanle baino gehiago ez dituzten udalerrietan eta, gainera, km2-ko 100 biztanle edo gutxiagoko dentsitatea duten udalerrietan.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).